


Lurraren eta zeruaren artean



Nima, Namtxeko sherpa

Jatorrizko izenburua: *Nima, xerpa de Namtxe o la recerca d'un norpa errant*

Egilea: Josep-Francesc Delgado

Itzultzailea: Antton Olano

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Erein (Perzebal bilduma)

KARLOS DEL OLMO

Josep-Francesc Delgado Mercader (1960) idazlariak Kataluniako historiako eta filologiako lizentzia lortu ondoren, idazletza, kazetaritza, kritika literarioa, irakaskuntza eta, jakina, literatura lantzen jardun du egundainotik.

1987. urtean lortu zuen lehen literatur saria *Havies d'haver posat La Traviata* lanarekin. 1988. urtean *Si pugues al Sagarmatha quan fumeja neu i vent* lanari esker gazte literaturako Joaquin Ruyra saria eskuratu zuen. Urte berean, kontakizun historikoaren alorreko Pretrèrit Incert saria jaso zuen *La recambra blava* lanaren bidez eta poesiako Amadeu Oller saria *Autopista Púrpura* poema sortaren bitartez.

1991. urtean Maria Manent poesia saria eskuratu zuen *L'arbre del desig* lana zela bitarte eta 1992. urtean *Barcelona* poemaren bidez Torroja del Priorat herriko lore jokoetako *Englantina d'or* delakoa.

Antton Olanok beti bezain egoki euskaraz eskaini digun *Nima, xerpa de Namtxe o la recerca d'un norpa errant* eleberriak 1993. urtean Europa Haur eta Gazte Nazioarteko Sariaren bigarren edizioa eskuratu zuen.

Harrezkero, beste sari batzuk eskuratu ditu, batez ere haur eta gazte literaturaren baranoan. Nolanahi ere den, idazle honen gai nagusietan Himalaiaren inguruko lurrek eta pertsonen garrantzia berezia izan ohi dute.

Bestalde, AJELC (Associació de Joves Escriptors en Llengua Catalana) elkartearen sortzaileetako bat izan zen 1980. urtean, idazle katalan hasiberriei lanbiderako sarbidea errazteko asmoz. Ez dira ahanzturan uztekoak testu liburugintzan ere plazaratu dituen lan didaktikoak.

Himalaian izan ziren mendizale katalanen kontakizunekin, nonbait, konformatu ez eta bidaia batzuk ere egin zituen urruneko alde hartara. Bidaldion emaitza, besteak beste, Nimaren istorioa. Kontakizunean ia ezar-ezarian ehunduta, mitologia hindu eta budista, paraje haietara joandako europar bidaiarion jokabidea eta egilearen beste zaletasun bat: delta hegoa.

Nima, Namtxeko sherpa lanaren jatorria *Sota el signe de Durga* bidai eleberria da. Eskuartean dugun hau aitzindaria baino literarioagoa da.

Hala, 12 urteko *Nima* nepaldarrarekin erraz identifika litezke horrelako adinaren inguruko irakurleak, baina eleberriak ez du aspertuko, inondik inora, adin hori ondo atzean utzitako irakurlea —batez ere mendizale izanez gero—, abenturaren hariari esker, inguru hartako hainbat kultur ezagupen eskaintzen dituelako liburuak. Nerabeak protagonista dituzten eleberri gehienon antzera, bidaia inizatikoa dugu muina honako honetan ere. Iniziazio helburua, ordea, bikuna da: delta hegoaz hegan ikastea eta aitaren espiritu alderraia askatzea. Jakina, liburuak nekez ezkutatu dezake helburu didaktikoa edo difusiokoa. Vernerren eleberrietan bezalaxe.

Liburuak hiru zati eta epilogo bat ditu, bidaia edo eskalada bateko aldiak balira bezalaxe. Xedeak, gailurra, lortuta, protagonistentzat bizialdi berri bat hasiko da, oso bestelakoa, horrelako menturen ostean, ezinezkoa delako lehengo berean irautea.

Antton Olanoren itzulpenak ezelako arazorik gabe lortzen du honelako eleberri baten helburu nagusia: irakurle gaztearen gozamina ez oztopatzea, honako honetan, adibidez, atzerriko izen

ezezagunen oztopo garrantzikoa izan arren. Meritua, beraz, ez da makala.

Aipatzeko modukoa, Euskal Herrian plazaratzen diren literatur itzulizko bilduma gehienetan bezalaxe, itzultzailearen izenik ez aipatzea azalean. Nahiz eta idazle handi askok sarri ere sarri aitortu duten beste hizkuntzetan lortu duten arrakastaren parte handi bat itzultzaileei zor dietela, alegia, obraren enbaxadoreei. Eta gustuak gorabehera, liburuaren azalak, beharbada, diseinu ahalegin handiagoren bat edo beste ere beharko luke.

20061102